



2015EKO OTSAILAREN 6KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabosteko otsailaren seian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratu-tako zinegotziak honako hauek dira: Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Kepa Goenaga Alikostes eta Maialen Aldasoro Aranburu zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkezten da 2015eko urtarrialaren 23an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2014ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 120 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA HAMALAU MILA ETA BERROGEITA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEITA HAMALAU ZENTIMO (34.059,94 €)takoa eta 2015eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 2 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, LAU MILA LAUEHUN ETA BERROGEITA BAT EURO ETA HIRUROGEITA BAT ZENTIMO (4.441,61 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 14-11-01 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2014ko abenduaren 22an, astelehenetik larunbatera egunean 3 ordu, eta onuradunak zerbitzu kostuaren %15eko ekarpena eginez, eta baja ematea 2014ko abenduaren 26an heriotzagatik.
- 15-11-01 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2015eko urtarrilaren 26an, astelehenetik larunbatera egunean 3 ordu. Onuradunaren ekarpena Zerbitzu kostuaren %2 izango da.

Entitateei diru laguntzak.-



